

BULARRETIK MINTZORA egitasmoaren jarraipena.

Eskoriatzako LUIS EZEIZA ikastetxeko enkarpena.

- 1. Noiz hasi zineten Bularretik Mintzora egitarauaren formazioa jasotzen?*

2014ko Urrian

- 2. Nola gogoratzen duzue formazioa jasotzen ibili izan zineten urte tarteak? Gauza berri asko jaso zenituzten? Ordura arte zenekitena aberastu zuen?*

Oso aberatsa iruditu zitzaigun. Hasieran informazio ugari eta oso interesgarria jaso genuen. Proiektuan aurrera egin ahala jasotako informazioa ordenatu ahal izan da eta gauzak argiago ikusi ditugu.

Hitzaren aurretik soinua dagoela eta soinuen aurretik erritmoa, eta hizkuntza bereganatzeko ezinbestekoak direla, oso garbi jakinarazi zigun.

- 3. Hirugarren fasean zaudeten unean, Zuen geletako eguneroko jardunean eragina izaten ari al da?*

Gure egunerokotasunean txertatu daukagun ekintza bat bihurtu da, nahiz eta egunero aurrera eramatea ezinezkoa egiten zaigun, baina egia da oso barneratua dugula eta garrantzia handia ematen diogula.

- 4. BM-k proposatzen duen egitaraua gelan txertatzeak zein zailtasun ditu?*

Batzuetan denbora tarte falta izaten dugula beste eginbehar batzuk suertatzen zaizkigulako.

Beste batzuetan, ikasleek gogo gutxi adierazten dute proposamena luzatzerakoan. Horrelakoetan olerki edo jolas berriak aurkezten dira, berriro ere beraien motibazioa berreskuratzeko asmoz.

5. *Haurren ikuspegitik, zein alderdi positiboak ikusten dituzkiozue?*

- 2 eta 5 urte bitarteko haurren? Gure ikasle gehiengoan ama hizkuntza gaztelania denez, ekintza honekin euskararen erabileran aurrerapenak sumatu ditugu, ahoskera lantzeko aproposa da oso, baita arreta eta memoria ere. Ikasitako olerki, errima, abestiek... emanalditxoak prestatzen dira beste gelakoei eskeintzeko. Honekin haurrak jende aurrean jartzen ohitzen dira.
- 5 eta 8 urte bitartekoengan?
- BM proiektua aurrera eramateak, ahoskera areagotzeko eta sistema fonologikoa finkatzeko oso lagungarria izan zaigu. Baita silaba zatiak zein hitzen banaketak finkatzeko eta irakurketa sustatzeko.

6. *Irakasleek disfrutatzen al duzue haur literatura umeekin erabiltzen duzuelarik?*

Guztiok disfrutatzen dugu eta argi dugu horrela izan behar duela, haurrek ere gozamen hori jaso dezaten.

7. *Erabiltzen dituzuen baliabideak aukeratzeko orduan zuen irizpideak aldatu al dituzue?*

Boletinean jasotako materialaz baliatzen gara gehien bat. Aldatu den irizpide bat ipuinak kontatzeko modua izan da, orain arte ohituta egon baikara ipuinak euskarriarekin kontatzera, eta Itziarren gomendioari jarraituz, ipuinak kontatu egiten dira euskarririk gabe eta baita irakurri ere.

8. *Egitarauan proposatzen diren baliabideak erraztasunez erabiltzen dituzue:*

- Poemak, kantuak eta hitz-jolasak.
- Euskarririk gabeko ipuin kontaketa, album ilustratuen kontaketa, testu desberdinen irakurketak...

Bide honetan ari gara eta urtetik urtera erraztasun gehiagorekin egiten ditugula jabetu gara.

9. *Kontatuko zeniguke zain den Motxilek etxera eta bibliotekara egiten duten joan etorria? Geletan protokolo bereziren bat egiten al da gonbidatutako liburuen inguruan?*

Ostiralero gela bakoitzeko haur batek motxila eramaten du liburutegira ipuina aldatzeko. Aukeratutako ipuina aste buruan etxean edukitzen du, familian liburuaz gozatzeko eta astelehenean gelara ekartzen du.

Liburu horrek aste guztian zehar leku berezi bat dauka gelan eta asteko liburu protagonista bihurtzen da.

10. *Bularretik Mintzorak egitasmoan zaudetenetik, iruditzen zaizu umearen irakurketa inguruan, etxea, eskola eta bibliotekaren artean lotura handiago bat sortu dela?*

Batzuengana iritsi garela sentitzen dugu eta umearen irakurketa inguruan harreman estuagoa sortu dela nabari da, baina kontziente gara guztiengana heltzea ez dela erreza.

11. *Nolakoa izan da Bularretik Mintzora harrera eskolan? Eta familietan?*

Eskola mailan harrera oso ona izan da, jakin badakigulako hau dela bidea. Familietan oihartzuna ostera, ez dela nahi bestekoa iruditzen zaigu.

12. *Nola baloratuko zenuke Bularretik Mintzora orokorrean.*

Oso positiboki.

Maleten maileguaz ere hasiak gara eta hiru hilabetero nahi beste ipuin egoki aukeratzen ditugu irakasleok.